

ANDRA MARIA'REN GURASOAK

Jaungoikoak ezerezetik sortua dogu gizona, izatezko ta izatezgoitiko doai, on era ederez apainduta, beti zoriontsu izateko baratz zoragarrian ipiñia. Bera zan, Jaunak alaxe naita, gauza guztien nagusi ta buru: abere, pizti, arain, egazti, lur-zeru-itxasoan bizi ta zirkin dagian edozer bere menpeko.

Baña Jaunak, egile zanez, gizonari berari be lege ta aginduak ezarri eutsozan. One. tariko agindu bat: «Ez egizu on eta txareko zugatze: ik jan, ofela ba'zengi, bereala ilgo zara». Gure lenengo gurasoak, ostera, ausi egin eben agindu ori, Jaunak esandako bete nai ezta pekatu egin eben.

Goiko Jaunak, alan be, okerkeri txikienik be ezin dau ikusi, ori dala-ta, jaurti egin eben gizona atsegintegi artatik. Eta or, aiezkerio, doai ta on barik, mundu zeastu ta lafi.

Jauna, baña, zuzena lez on utsa dogu; ta gizon efukaria ez eban bertanbera itxi: ordutik artan bertan, itxaropenezko argi gozo eztitsua biztu eutson bañuan. Noizbait aldiak ots egingo, ta orduantxe etsayaren esku arrietik urtengo eban. Nok, baña, atera egokera lafi aiatik? Salbagile batek Jaungoikoaren Semea bera gizon egingo zan.

Lau mila urte joanak dira. Noiz elduko Jaunak eskiñitako gizon ariagaria? Biotz begiak gora jaso ahen, burdiñezkoak dirudie zeruko ateak. Alan be, zar eta gazte, on eta gaizto jazokun audi baten zain dira. Idazti deunak eta antxiñako leloak diñoneez, laster biztuko da ilunean argia.

Eta alantxe izan be. Gauza guztiak gertu dagoz, ta Jaungoikoaren Semea laster gizatuko da, noski. Bere ama izango dan emakume aintzagaria argitara ekariko dabentzkon-lagun apal-zoriontsuak goitiko eskar eta onez beterik bizi dira.

Nazaret, Galilai'ko eri txikia. Ementxe bizi da Joakin, gizon leyal eta Jaungoiko zalea, Dabid efegearen odolekoa. Onen emazteari Ane deritxo, benetan eder eskartsu.

Biak dozuz Jaunaren begipean zindo ta onak. Txiro ta ilun bizi ahen, Jainko-maidasunean ez dira alper. Efayetan ba-dabe, ofaitiño, ao biko ezpata zofoza: umerik ez daukee. Eta lotsagari da, batez be Israel'go emakumientzat, umerik-eza. Baña, naita ogei urte ta geyagoz ofela bizi, iñoi ez dabe mormoxik atera.

Jauna, beti on. Goiz eguzkitsu baten soloan da Joakin. Nundik eta zelan ez dakia. Bildur izan, Joakin, Jaunak entzun ditu zure ahenak, zure biotzetiko eskintzak. Ane zure emazteak alaba bat izango dau, ta Zuk Maria izena ezañiko dausazu, baita eleizatik, eta aren bitartez, gauza ariagaria egingo ditu. Au esanaz batera, ufe-egoai eragin eta alde dau gotzon goitafak.

Ordu berean, Ane be otoitz berotan dago gelatxo ixilean. Oni be aingeru bat agertu yako, ta onela esan: «Ane, zure otoitz eta oyu biziak entzun ditu Jaunak». Eta

(Beste orialdean jarraitzen dau)

Ane'k: «Ume bat emoten ba'daust beintzat, berari eskiñiko dautsa». Eta zerutafak iges, ego zuri biak blei-blei.

Amabiak ots orduko, Joakin solo-ianak amaituta, etxera da. Pozik dator, biotza taupaka. Zer jazoten? Len ilun ta orain argi, zer dala-ta? Ane'k be bardin, ifi-lore mar-dula dau ezpan-ganean. Zer gerta eie? Senar emazte biak, poz-jarioka, izandako zeru-

tar agarpenak alkari iragar dautsez. Ete bañuko poz-eskar ona estali eziñik, eleizara jatsi dira ta Jaungoikoaren ontsuna luzaro goretsi.

Azkenik bete dira zerutiko eskintzak. Or Ane, Jaunak alan naita, jatcizko pekatu barik sortutako labatxo baten ama egin.

BASETA

ELI IGARLE DIEUNA

I

Ez al dozu iñoi ikusi, Irakurle Karmeldaren elizaren batzen sartu izan zeranear, bertsako aldareren batzen gañean, soña gamelu-laruz jantzita, arpegia ta burua zilarrezko ile ta biza-tez zuri, gefia ugalez lotuta, eskuan suzko ez-pata jasota, begirakun sakon eta zofoz beziratu dizun irudirik? Orixe dezu, bada, Eli Igarle aundi, Karmeldarok gure Alaitzat aitortu oi-deguna, Lege-Zareko Igarleen artean gorengoen, Israiel eria ta bere efegeak egizko Jainkoaren Legetik aldentzen ziran bakoitzean ezufetaraño izutzen zituana ta Iudiaren azken egunetan juduak Jesukristo-ren artalde-za biurtzera etofiko dana.

Bere guraso ta jaiotzaz eztakigu ezer. Ez nundik eta ez nora, oidei arrietik azaltzen dan tximistaren gisara agertu zan luñean.

Jesukristo-z aitoko IX'garen gizaldia da. Akab, Israel'go efegeak, Jezabel bere emazte bliñaren alegiñez, egizko Jainkoa utzirik, Baal ta Astarte gurtu-arazi zizkion bere eriari. Eli Igarlea, efegearen gaiztakeri beltz ori jakitean, beronen jauregira aurkezturik, onelaxe mintzatzen zaio:

—Zin-zinéz iragartzen diat, ez intzik, ez eurirk, eztala izango ondorengo iru urte aue-tan, beñizneronek esan arte.

Itzok bukatuaz batera, efege-jauregia utzia, bakartade batera, Karit eureka ondora, joan zan. Antxe igaro zituan egun batzuk, beleak, golz ta afatsalde, ogia ta aragia jaten emanazta efekekura edanaz. Aldi gutxiren buruan, ordea, eureka ori agortu egin zan eta orduan Eli, Jauna'ren aginduz, Sidonia'ko Sarepta uriruntz abiatzen da; uriko ateetara orduko, emakume alargun bat arkitzen

—Emaidazu, ahen, ura ta agi pizkat, diotsa emakumeari.

Irin pizkat eta olio tanto batzuk baizik ez-tet —darantzuio onek — eta bera efetzeko egur-bila ari nauzu, jandakoan, neru ta nere semetxoa il gaitezen.

—Emaidazu jaten eta ez bildui izan —diotsa Igarleak — Israel'go Jainkoaren aldetik iragartzen baitizut, ez iriñik, ez olierik, etzai-zula akituko, Jauna'k luñera beriz euria bialdu arte.

Izan ere, Igarleak esanda bezelaxe ger-tatu zan. Eli, alargunaren etxearen gelditu zan, beraz, ostatuz. Andik egun gutxiren buruan, alargunari bere semetxoa iltsen zaio ta emakume naigabetuaren negaraz kupiturik, Igarleak mutikoa berpiztu ondoren, bere amari biurtzen dio.

Eli'k toki artan iruen bat urte zeramazkia-la, Akab efegearen beriz aurkezten zekiola agintzen dio Jauna'k. Iru urte aietako legor ta go-seteak eriari ekaritako ondamenak, ba dirudi, efegearen arokeria zerbait eratsi ta bere gaiztakeria aitor-arazi bear ziola. Baña, ez! Gertakizun aren eria Eli Igarleari egotzi nairik, ale-gia, asafe biziz onelaxe esaten dio:

—I ez al aiz Israiel eria asaldarazi ta nastu dekana?

—Ez nauk ni —darantzuio ausarkiro Igarleak — erria naspildu dedana, i ta ire sendikoak baizik, egizko Jainkoaren aginduak utzia, Baal'en ondoren joan zeratelako. Orain, bildu zak, beraz, Karmel-Mendia'n Israiel osoa; bijoaz bertara Baal'en igerle edo apai-zak; ni ere antxe izango nauzute.

Era bildu zanean, onelaxe itz egin zien
(Beste orialdean jarraitzen dau)